

## *Jose Inazio Lasa Odriozola*

*Beasain, Gipuzkoa  
(1924-2014)*

Aurkibidea

**Biografia**



Garin auzoko Garin-Arretxe baserrian jaio zen 1924an. Gurasoak biak ziren Garin auzokoak. Ume-umetatik lan egin behar izan zuen baserrian. Auzoan bertan ibili zen eskolan hasieran eta, geroago, Beasainen fraideekin. Bertsolaritzarako zaletasun handia zuen eta horri lotutako kontu ugari aipatu zituen Beasaingo euskara eta etnografia jasotzeko bekarako egindako elkarrizketan. Goierri Telebistarako ere egin zioten beste elkarrizketa bat.

## Zintak

### BEA-006

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-23
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun

### BEA-007

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-06-23
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** MiniDV

### BEA-066

- **Proiektua:** Goierri Telebista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Telebista, Goierri
- **Data:**
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** DVD
- **Emalea:** Telebista, Goierri

## Pasarteak

### 1. 7 urte zituenerako baserrian lanean

- **Erref:** BEA-006/002
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:00:43. **Bukatu:** 00:02:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

#### Laburpena:

7-8 urte inguru zituenerako baserriko hainbat lanez arduratzen zen: itulan, behi eta ardian zaintzen, etab. Lanean hain gazte hastea ohikoa zen garai hartan. Baserri "on" eta "txarren" arteko desberdintasuna.

### 2. Auzo-eskola; apaiza irakasle

- **Erref:** BEA-006/003
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:02:09. **Bukatu:** 00:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Garinen bertan zegoen eskolan egin zituen ikasketak. Irakasle ofizialik ez baina ona bai: apaizak ematen zituen eskolak. Eliz atarian zegoen gela txiki batean kokatzen zen eskola hura. Auzokoak bakarrik joaten ziren bertara.

**Transkripzioa**

- Gero, ba... eskola ´re, ba, bertan. Bertan zan gue eskolea. Nahiz eta maisu ofizialik ez gendun, baiño maisu ona bai: apaize. Apaizek hemen eitten zon apaize izateaz gaiñea maisutzea. Oain, hori bai, eguardi arten bakarrik. Eguardi arte izaten gendun. Ez nao seguro ze ordutan hasten giñen, baiño eguardi arten bakarrik.

- Arratsaldetan ez...?

- Arratsaldeetan lanea. Aittei laguntzea ta, aittei ta amai ta danai.

- Eta eskola non ematen zuen abadeak?

- Eskola? Hortxe, lokal txiki-txiki bat zan. Hamabost bat lagun edo... ba, hogeitai baiño gutxigo behintzat, hola biltzen giñen, hemen auzokook. Eta elizpen edo eliz-atarie esaten zaion hortan, hor zan, ba, lokal txiki bat, sukalde hau baiño zerbait haundixegoa, baiño hola. Hantxe ikasitakokin defendittu gea.

- Eta bertatik, ingurutik, Arriaran auzotik edo igotzen ziren umeak hona?

- Eskolaa ez.

- Eskolara ez?

- Ez, ez, bertakok bakarrik.

- Zeuek, auzokoak...

- Bertakook, auzokook bakarrik, auzokook bakarrik. Eta nik uste det, udaletzek edo hola zeoze ematen baldin bazion ta, gaiñantzen ´e, baserriko umek... haik... zeatik babarruna edo zeoze eramaten bazioen eta kitto hola bestela, e! Oain, maisu bezela, badakit seguro, direktamente maisu bezela ez zon eze kobratzen apaizek. Baiño, klaro, zerbait ein behar zoon, ba, hemen... pff! gizon batek ´e beste lanik bae zeon garaien, ba... Eskola ematea, beharbaa, beantzako izango zan, ba... ez dibertsioa bakarrik, baiño handik aurrea ez halako lan... lan goorra ´re ez.

- Ez, ume gehiegi ere ez eta, bueno, arratsaldean libre izanda...

**3. Eskolan euskarazko eta erdarazko liburuak erabiltzen zituzten**

- **Erref:** BEA-006/004
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:04:02. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

**Laburpena:**

Eskolak ematen zituen apaiza abertzalea zen. Katona (irakurtzen ikasteko erabiltzen zen lehendabiziko liburua)euskaraz zuten, "Martin txilibitu" zeritzon. "Xabierto" izeneko liburua erabili zuten aurrerago. Gaztelaniazko liburuak "Valentin" zuen izena.

**Transkripzioa**

- Hantxe behintzat guri eakutsi ziuna izan zan, ba, ezer baiño gehiao, irakurtzen leitzen... este... idazten —eskribitzen, esaten deun bezela— nahiz euskeraz eta nahiz erderaz. Zeatik bera abertzalea zan. Aspaldi hil

zan, baiño abertzalea zan. Eta berak ez dakit... nolabait´e moldatzen zan “Xabierto” eta lehenengo katona bezela, katona bezela lehenengo jartzen ziuna zan “Martin Txilibitu” izeneko... letra haundikin. Katona. Katona, erderaz esaten zaion katona entzun dezu iñoiz? Bai...

- Bai, ze izaten zan hori? Letrak ikasteko edo...?

- Katona zan, ba, aurreneko... bost-sei urteko... sei bat urtekin hasten zien ordun eskolan. Ba, sei urtetik atzea aurreneko ematen zitzaien letra haundikiko liburuska bat zan katona esaten zitzaiona. Eta hori euskeaz genduken, “Martin Txilibitu” izena zona.

- Eta “Martin Txilibitu” hori...?

- Euskeraz!

- Bai, bai. Eta berak zeukan liburu bakarra ala zeuei banatzen zizuen edo...?

- Eongo zien, ba, eskolan, bi eo hiru eta bata besteai utziz ta abar. Hola eitten zan. Eta gero pixkat hasi giñen, ba, ya zortzi bat urtetik atzea edo, ba, “Xabierto”. “Xabierto” izeneko liburu bat. Gogon dauket ze moldeztegitan eindakoa zan, Tolosako... Oain ez zat akordatzen... “Isaak Mendizabal”! “Isaak Lopez Mendizabal” izeneko moldeztegin eindakoa zan liburu hoi, “Xabierto” izeneko, “Xabierto” izeneko liburu hoi. Hoi zan irakurtzen ikasten genduna. Eta gero, ba, erderazkoa´re eakusten ziun: “Valentín”, “Valentín” izeneko.

- Liburua?

- Liburua, irakaste... este... erdeaz. Eta... “Valentín, o el niño bien educado” zon izena horrek. Eta “Xabierto” eta hori, bat erderaz ta bestea euskeraz irakurtzen seitzen giñon. Ta, gogon dauket, korron jartzen giñen —txikiik´e, pixkat bajuxeok aparte ziela ta abar— eta bata besteai leitzen gendun. Lerro bat leittu eta “Oain...”, beak apuntatzen zon hoola eta bestea irakurtzen ez bazijon, ezin zan hasi lerro beretik, ordun seittun eroitzen zan. Holaxe.

- Arretaz egon behar, ez?

- Jarraitu ein behar! Ba, hasten zan, ba... gaur esango deu, ba...

“Xabierto beti pozik dabil, gurasoak eta zaharregoak agintzen dioten lanak egiten. Martin, berriz, beti kopetilun dago” eta abar. Holako esaldik.

- A! Halako estiloko esaldiak ziren?

- Bai. Eta hola, ba, illaran eongo giñen, ba, klase banaka... Klasek bertan ein behar izaten zittun: txixixeok, hazixegok eta abar.

- Bai, adin desberdiñetakoak guztiak elkarrekin...

- Adin guztiak alkarrekin, baiño danai diferente eman behar zien. Ta hiru-lau bat egongo giñen irakurtzen, illaran, lehen esan dean bezela. Geo, idazten, ba, antzeko zeozer izango zan, nahi ta nahiez. Ta, horrez gaiñea, asko sartzen ziuna zan “matemáticas”.

#### 4. Matematikak

- **Erref:** BEA-006/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:10:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

#### Laburpena:

Adin desberdinetako ikasleak zeuden gela berean. Matematikako irakasgaia gazteleraz izaten zen. Bizitza errealean gerta zitezkeen problemak ebazten ikasten zuten.

## 5. Sortalde, sartalde, hegoaldea eta iparraldea

- **Erref:** BEA-006/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:13:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

### Laburpena:

Geografia irakasgaien zer ikasten zuten kontatzen du. Puntu kardinalak, adibidez, euskaraz ikasi zituzten. Gaiarekin erlazionatutako anekdota txiki bat kontatzen du.

## 6. Beasaingo eskolan jolasten ikasi zuen

- **Erref:** BEA-006/010
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

### Laburpena:

1937. urtean bidali zuten Beasaingo eskolara. Ezertan baino gehiago, jolasean ikasi zuen Beasainen. 50 lagundik gora gogoratzen ditu ikasgela bakoitzean. Gerra Zibila puri-purian, irakasle pare bat ere gerrara eraman zituztela kontatzen du.

## 7. Baserriko lanak eta eskola batera

- **Erref:** BEA-006/012
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

### Laburpena:

Eskola garaiko eguneroko bizimodua deskribatzen du. Eskolara joan aurretik, baserriko lanak egiten zituzten.

### Transkripzioa

- Bertan, eskolara honea joaten ziñetenean, ze izaten zen, eguneroko bizimodua zein zen? Goizean goiz esnatu... Ze ordutan hasten ziñeten...?  
- Jeiki ta hola? Jeiki goiz. Udaan behintzat oso goiz jeikitzen giñen. Ba, geo etxen beti lana izaten zan, ikuillun ta... Txikik izanaatik, seittun lanen [ikasten] da, baserriko lana ikasten. Lan goor-goor batzuk kendu ezkeo, ba, mutiko batek-eta ohittu ezkeo... umeeke lan asko eitten do! Lan asko in dezake umeeke! Ez jolasen bakarrik ibiltzen baa, ez, ta lanik ez bazaio eakusten´e, ez. Baiño eakutsi ezkeo... Eta ordun, ba, ikasten zan etheen, etxeko... etxeko martxea! Ba, behiek jexten´e Beasaiña eskolaa juteako

hasitta neon, esnea xamurrena zuena jexten ta hola. Ta arten ez neuzken hamahiru urte baiño gehiao. Baiño halaxe, lanpeen. Hortan ikasi gendun ta...

- Eskolara negu aldean edo... Eskola garaian, bertara joan aurretik, eskolara joan aurretik, lanen bat egiten zenuen etxean?

- Etxen, ba, zeoze ein behar izaten zan beti. Jakiñe, ba! Edo azpik ein edo ikuillun beti eoten da lana. Ta geo garai bakoitzen, ba, baatzati... baatzan amai laundu edo egurre ekarri o txikittu edo... milla gauza.

- Ta gero arratsaldean...

- Arratsaldean lanea, hoi bai. Hoi zan gue hemengo martxea. Oain, esan dean bezela, behin Beasaiña alde itten hasi giñenen, ba... hango lana ez zitzaian lana iruitzen nei, hango eskolako lana, zeatik gehiegi´re ez giñutzen estutzen. Alde batetik, ezin zalako. Ezin da, zeatik maixu batek nik ez dakit zenbat izango litzaken hola... ideala.

- Zenbat ikasle...?

- Hamabost, hogei? Hortik aurrea, beharbaa, gehiegi. Eta gu, pentsau, berrogeta hamar giñen!

- Bai, eta segun ze adifñetakoak diren...

## 8. "Guía del artesano", idazkera-estiloen liburua

- **Erref:** BEA-006/014
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:23:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

### Laburpena:

Dotrinaren ordez, "Kristau ikasbidea" ikasi zutela kontatzen du. "Guía del artesano" izeneko ikasliburua ere ondo gogoan dauka; eskutitzez osatzen zen liburua zen, kaligrafia ikasteko ere baliagarria.

### Transkripzioa

- Apaizarekin dotriña ikasten zenuten...?

- Dotriña, bai. Dotriña´re ia gu baiño lehentxeo aldatu zan. Lehenao "dotriña" zan eta geo "kristau ikasbidea". Guk ikasi gendun "Kristau ikasbidea".

- Eta liburuska berdiña...?

- Liburuska berdintsue. Ez dakit etheen eongo dan... igual... igual galdu izango die. Eskolan ikasten gendun beste liburu bat, pozik ikusiko nukena, "Guía del arte sano" izenekoa.

- "Guía del arte sano"?

- "Guía del arte sano", hoi zon izena.

- Eta zer ikasten zen...?

- Eta zan dana eskuidatzittako kartak, eskutitzak, "vamos", kartak, eskuidatzittakok. Nahiko... redondilla antzeko zeakin eta abar.

- Bai. Eta, gaiñera, aurreko baten esan zenidan —hemen gordeta izango dut...—, letra-tipo berezi bat, ez? Eta, gaiñera, ze...?

- Aizkenen, bukaera: "Su seguro servidor que besa su mano", dana maiuskulakin.

- Horrelako...

- Bai, bai. Letra inglesa esaten zioen horri, ez dakit... Orduun hala esaten zitzaion, oain ez dakit ze esaten dien. Baiño zien kartak sozidaden zea

guzittakok, batzuk been "vucencia". "Vucencia" zan, ba, osea, militarren, ejerziton...

- Bai, tratamendu...
- Bai, "de coronel pa´ arriba, vucencia". Eta gero zeantzako, este... o(b)ispontzako bat: "reverendísimo", "reverendo", "su santidad"...
- Mailla desberdiñak, ez?
- Been maillakin eta abar. Oain, bukatzeko beti berdin: "S.S.S.Q.B.S.M"...
- "Q"...
- Osea, "su seguro servidor que besa su mano". Eta ez dakit, liburu hoi pozik ikusiko nuke. Ez dakit nun eon leiken, baiño zaille iruitzen zat billatzen. Eta, lehen esan deana, zien, ba, neska-mutillen arteko zeak, kartak eo fabore haundi bat eskatuz sozidade altuko batzuri, ta bakoitzei been... "de usted", "de vucencia", "de usía"... hoik danak aurkitzen zien karta hortan edo... liburu hortan. Ta ez dakit ze in zuen liburu haik, galdu in zien, nunbait. Baiño ez zendun iñoiz aittu, e?
- Ez...
- "Guía del arte sano".
- Ez. Bueno, lehengo egunean esan zenidanean, baiña bestela ez.
- Holaxe, bueno.

## 9. "Kristo errege" abestia

- **Erref:** BEA-006/016
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:24:01. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

### Laburpena:

Sabino Aranaren kutsua zuen "Kristo errege" abestia kantatzen du

### Transkripzioa

- Gero esan zenidan abestiak ere ikasten zenituztela, ez?  
- Abestiak eskolan? Bai.  
- Dotriñarekin batera edo...  
- Bai, dotriñakin-ta eliz-abestik? Buuf! Asko, asko!  
- Eta, gaiñera, bat... gogoan zenun bat —oso-oso ondo kantau zenun, gaiñera— "Kristo errege" edo.  
- A! "Kristo errege"-na?  
- Bai.  
- Euskera... Klaro, ordun zan garai bat hor Sabino Aran... sortu zon ya garbitzaille, garbi... euskera garbi-hizketa zea hori asko eta horren kutsu pixkat zemaken garai horrek. Eta hemen apaizek eakutsi ziun Kristona hoi. Nahi baezu, abestuko dizut...  
- Bai, bai, mesedez.  
-  
"Gure bakalduna Josu zera  
zure gurutze deuna  
gure ikurriñik maiteena  
maiteena.  
Sinismen maitea,  
ez zera galduko  
Kristo zaindari dezula  
gaizkatu zera

Gora, gora, Josu,  
gure bakalduna.”

- Ze politta...
- Polita al da?
- Bai, bai.
- Berrie o... zuretzako oso berrie; neetzako ez!
- Oso berria, bai, bai. Eta, gaiñera, igartzen da, bai, zuk esan dozuna, ez? Kutsu hori. Ba, pixkat... “Josu deuna” ta...
- “Josu” ta “bakalduna” “erregea”.
- “Erregea”, ez? Horrelako hitz...
- Oain, hoi ez gendun iñoiz abestu elizan. Eakutsi in ziun, baiño ez gendun abestu behin´e. Hoi gogon dauket. Baiño hoi ikasten aste bat, baiño pozik!

## 10. Bertsolaritza garai desberdinetan zehar

- **Erref:** BEA-006/018
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:29:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

### Laburpena:

Garai desberdinak bizi izan ditu bertsolaritzak. "Basarri" zenak, pikarokeriari neurria hartzea oso zaila zela esan zion sarritan. Elizak indar handia zuen garaian ere, parrandara lotua zegoenez, gaizki ikusia egon zen.

## 11. Lazkao Txikiren "Ez eduki, ez, ni beti pozik" bertsoak mezu sakona transmititzen du

- **Erref:** BEA-006/019
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:29:19. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

### Laburpena:

Lazkao Txikiren bertsoa "Ez eduki, ez, ni beti pozik" bertsoa kantatzen du. Barrea eragiten zuten bertsolari askok, bertso oso serioak kantatzen zituztela iruditzen zaio. Bere iritziz gainera, Lazkao Txikiri ez zitzaion batere gustatzen bertsolaritzak hartu zuen noranzkoa.

## 12. "Basarri" bertsolaria

- **Erref:** BEA-006/021
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:34:14. **Bukatu:** 00:38:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Basarri bertsolaria oso serioa zela kontatzen du. Hitzak oso ondo neurtzen zituen pertsona izanagatik, jende askoren mesprezua jasan behar izan zuela dio. Gauza asko esan edo pentsatzea libre ez zen garaia bizitzea tokatu zitzaion Basarriri. Ihesi joan behar izan zuen gerra garaian. Harrapatu izan balute, eraila izango zela kontatzen du. Orduko "El día" egunkarian eta "Zeruko argia"-n idazten zuen.

**13. "Lazkao Txiki"**

- **Erref:** BEA-006/023
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:39:29. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Lazkao Txikik pertsona serioa zen izatez. Ateraldi oso sakonak izaten zituela kontatzen du. Erraz aserretu edo mintzen zen gainera.

**14. Goierrin bertsolari gutxiago egoteko arrazoia**

- **Erref:** BEA-006/026
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:43:24. **Bukatu:** 00:45:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

**Laburpena:**

Bertsolari gutxi egon izan da Goierrin. Beterri (Tolosaldeko eskualdea izendatzeko erabili izan den modua) baino eskualde pobregoa izanik, ez da hain bezain beste lagunarte, sagardotegi eta abar egon. Goierrin, Zaldibia izan da bertsolari gehien eman duen herria.

**Transkripzioa**

- Gaiñea, lehen esan deuna, hemen Goierrin bertsolari gutxi zan, oso gutxi. Zeatik Goierrik... probintziko lurrik pobreena [da Goierri]. Hoi betikoa da. Zeatik Goierritik Beterria juten zien, ta Tolosatik beherakoa aberatsagoa da. Bi alderdi, bi gauzogatik: kapitala gertuun daukelako eta terreno bezela hobe da dalako. Eta beti goierriarra, ba, ba!, pixkat bajuxeo balitz bezela eo. Eta diru gutxi daon tokin, jakiñe izaten da geo, launarte gutxigo dao; ez [zan] Beterrin bezela, ez zien sagardotegik.

- Ez dao giro egokirik...

- Giro... ez, ez, dife(r)entzie zeon hortan. Ta hemen, nik uste det, Goierri guzin herri bat izatekotan, ta Goierri ta probintzin´e... onak edo txarxeok, bertsolari gehienak Zaldibin, artzai-herrin. Zeati artzaiek´e, behintzat, gutxiñez udan, egun lasaixeok´e izan eitten zittuen, ta alkarreana gehixeo biltzen zien, nunbait, mendi aldetik eta abar.

- Orduan izaten zuten aukera edo...

- Jakiña! Aukera, aukera. Klaro, gauza bat, ez baldin bazaio... jarraitzen ez baldin bazaio, ba, ez da juten aurrea. Hoi jakiñekoa da.

## 15. "Udarregi" zen gazteleraz zekien bertsolai bakarrenetarikoa

- **Erref:** BEA-006/029
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:48:25. **Bukatu:** 00:51:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

### Laburpena:

Bertsolaritza eta Euskara lotuta egon izan dira betidanik. Juan Jose Alkain "Udarregi" (1827-1895) bertsolaria zen gazteleraz zekien bakarrenetarikoa. Idatzita dauden lehenengo bertsoak Fernando Amezketarrenak omen dira. Bertsoak idatzita jasotzeko ohiturarik ez zegoen.

## 16. Bilintx eta Xenpelar matxista lirateke gaur egun

- **Erref:** BEA-006/030
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:51:04. **Bukatu:** 00:52:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

### Laburpena:

Bilintx, Xenpelar, eta abar, matxistak direla esango genuke gaur egun beste modu batekoa baitzen orduan emakumearekiko jarrera.

## 17. Bertsozaletasuna betidanik egon da Euskal Herrian

- **Erref:** BEA-006/031
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:52:35. **Bukatu:** 00:54:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

### Laburpena:

Oso onak ziren bertsolariak jende ugari biltzen zuten. Duela 200 urte inguru Azpeitian ospatu zen lehiaketa batek 1000 lagun inguru bildu omen zituen.

## 18. Txirritarekin lan egin zuen aitonak

- **Erref:** BEA-006/033
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:55:02. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Argia aldizkariak argitaratzen zituen Txirritaren bertsoak. Apaizak erosten zuen Argia eta hark lagatzen zion gero. Jose Inazioren aitonaekin lan egin zuen Txirritak. Anekdotak bat kontatzen du

**19. Txirritaren ateraldi zakarrak**

- **Erref:** BEA-006/035
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:59:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

**Laburpena:**

Ateraldi zakarrak zituen Txirritak. Adibide batzuk jartzen ditu. Euskarak bizi zuen egoerak arduratzen zuen oso. Gerra aurretik hil izan ez balitz, gerra garaian arazo larriak izango lituzkeela iruditzen zaio.

**20. Gerraosteko gosea**

- **Erref:** BEA-006/036
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:59:32. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Garingo eskolatik Beasaingo eskolara pasa zen. Gerra zibila eta gerraosteko gosea bizitzea suertatu zitzaion. Garai oso gogorrak izan zirela kontatzen du.

**Transkripzioa**

- Bueltauta Garin auzora eta zeure umetako edo gaztetako denborara...
- Gaztetako denbora hor nonbait esan det, batzuk behintzat bai: eskola.
- Eskola-kontuak eta...
- Eskola-kontuk eta handik aurrea, ba...
- Ta gero Beasaiñera maristetara, ez?
- Maristetan eon nitzen, bai, Beasaiñen.
- Orduan Beasaingo maristek, gaiñera, izen haundia izango zuten, ez? Inguruko mutillak ahal zuenak behintzat bertara...
- Bai, bai, zeatik, klaro, nazionalak fama gutxigo zeukeen. Nazionala esaten zitzaienak, eskola nazionalak, ba... Baiño eskola nazionala etan ´e uste det berdintsu pasatzen zala. Zeatik gerrea ta historiik eta... Jende asko eta laneako... zeatik sasoi onenekok gerra eamaten zittuen, ta...
- Bai, ez zen garai erraza...
- Ez zien garai... garai onak ez zien. Eta ondo(r)enak ´e askoz hobeek ez. Geo dana been esku hartu zoen garaien, dana bildurre sartu zuten danai eta... guk emandakoa jan. Eta, gaiñantzen, ixilik. Nahi bezela... Nahi dan bezela pentsau, baiñ ixilik egon baezpa ´re. Eta hola igaro zien, ba, urte mordoxka bat, pixkat ahazten juun arte gauzak. Ta zeatik jan kontuun, baa, dana jarri zoen... "Junta de abastos" esaten zitzaion bat sortu zan, ba, jauntxo batzun tarten eta hue zeukenak dana zeuken.
- Eta besteak...
- Bestek, ba, ahal zonak ahal zona. Ordun... Baiño ordun gaizkiña

fabrikatako langillek-eta pasau zoen, e! Hemen Goierrin behintzat bai; gaiñantzeko lekutan nik ez dakit. Castilla alden-ta beharbaa, orduun ez zeon hainbeste... Osea, lurretik jende gehio bizi zan. Ta lurretik bizi zanak nik uste det jana errexao hartzen zola.

- Hemen ere baserrietan...

- Baiño hemen baserritan... gu ondo defendittu giñen. Ba! Nahiko ogie ez bazeon, taloa; taloa ez bazeon, patatea. Ta babarrune ta etxen hartzen zan gauzea. Hoi jan ezkeo ez dao goseik. Oin... Gaur bezelako moko-fiñik´e ez. Holakoik ez.

- Ez zeguan...

- Ez, holakoik ez zeon orduun.

- Hitztuna 2: Ardie-ta etxen zeon. Ardik zeuzkenak eta ardik hiltzen...

- Bai, ardik hilda´re bai ta... Janaldi batzuk galantak´e bai. Oain baiño haundigok´e bai. Bueno...! Eske oain beteta gare, ta ez deu hainbesteko ilusioik.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-27*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com